

**Hautes Kontabilitateei
buruzko Irizpena
Eusko Legebiltzarrerako
hauteskundeak
2005eko apirilaren 17a**

**Dictamen sobre Contabilidades
ElectORAles
Elecciones al Parlamento Vasco
17 de abril de 2005**

AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA	4
I. ONDORIOAK	7
I.1 Lanaren zabalari mugak.....	7
I.2 Legea betetzea	7
I.3 Diru-laguntza proposamena.....	7
II. GASTU ETA DIRU-LAGUNTZEN MUGA	8
II.1 Hautes-emaitzak.....	8
II.2 Dirulaguntzen aurrerakinak eta jasotzeko dauden dirulaguntzak	9
II.3 Hautesleei igorpen zuzen eta pertsonala egiteagatik dirulaguntza	10
II.4 Hautes-gastuen dirulaguntza	11
II.5 Gastuetarako gehieneko muga.....	12
III. HUTSAK ETA GOMENDIOAK	13
III.1 Izaera formaleko arautegia urratzea.....	13
III.2 Gomendioak.....	13
IV HAUTES-KONTUAK	15
IV.1 EAJ-PNV / EA Koalizioa	15
IV.2 Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE).....	15
IV.3 Alderdi Popularra – Partido Popular	16
IV.4 Partido Comunista de las Tierras Vascas – Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunista.....	17
IV.5 EAJ-PNV / EA / Euzko Abertzaleak Koalizioa.....	18
IV.6 Izquierda Unida Berdeak - IU.....	18
IV.7 Aralar	19
ALEGAZIOAK	36

INTRODUCCIÓN.....	20
I. CONCLUSIONES	23
I.1 Limitaciones al alcance del trabajo	23
I.2 Cumplimiento de legislación.....	23
I.3 Propuesta de subvención	23
II. LÍMITE DE GASTOS Y SUBVENCIONES	24
II.1 Resultados electorales.....	24
II.2 Adelantos de subvenciones y subvenciones pendientes de recibir	25
II.3 Subvención por envío directo y personal a los electores	26
II.4 Subvención gastos electorales.....	27
II.5 Límite máximo de gastos	28
III. DEFICIENCIAS Y RECOMENDACIONES	29
III.1 Incumplimientos de la normativa de carácter formal.....	29
III.2 Recomendaciones.....	29
IV CUENTAS ELECTORALES	31
IV.1 Coalición EAJ-PNV / EA.....	31
IV.2 Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE).....	31
IV.3 Partido Popular	32
IV.4 Partido Comunista de las Tierras Vascas – Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunista.....	33
IV.5 Coalición EAJ-PNV / EA / Euzko Abertzaleak	34
IV.6 Izquierda Unida Berdeak - IU.....	34
IV.7 Aralar	35
ALEGACIONES	36

Vitoria-Gasteiz, 2005eko irailaren 27a

Vitoria-Gasteiz, a 27 de septiembre de 2005

SARRERA

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen 5/1990 Legeari jarraiki, 15/1998, 6/2000 eta 1/2003 legeek aldatzen dutena (aurrerantzean ELHL), Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) 2005eko apirilaren 17an Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan aulkia eskuratu zuten edo hautes-dirulaguntza aurreratzeko eskaria egin zuten kandidateuren sarrera eta gastuen kontabilitatea fiskalizatu du.

Indarreko arautegiaren arabera, fiskalizazio lanak ondotik adieraziko ditugunak egiaztatu ditu:

1.-ELHLren 140. artikulua hautes-sarrera eta –gastuen kontabilitatea aurkezteko moldeari buruz finkatzen dituen baldintzak betetzea.

2.-Kandidatek ireki edo gaitutako kontuak, hauteskunde batzordeari jakinarazitakoak, fondoak eskuratu eta hautes-gastuak ordaintzeko erabili direla egiaztatzea, ELHLren 141 eta 142.1 eta 2. artikuluek ezartzen dituzten zehaztapenak betez.

3.-Aurrez sortutako hautes-gastuak ordaintzeko irekitako kontuetako saldoen erabilera, botazio egunaz hurrengotik aurrera kontatuta 90 eguneko epearen barruan (ELHLren 142.3 artikulua).

4.-Norbanakoek egiten dituzten ekarpenetan, diru-ezarpenera egiteko unean izen, helbide eta nortasun agiri nazionalaren edo pasaportearen egiaztatzea (ELHLren 143.1 artikulua) eta ekarpen horien banakako gehiengo muga betetzen dela egiaztatzea, 145.4 artikulua zehazten duena eta 2005eko martxoaren 23ko Aginduan 10.211,19 pezetan gaurkotua dagoena.

5.-Alderdiek hautes-prozesuari aurre egiteko erabilitako diru-baliabideen jatorria (ELHLren 143.3 artikulua).

6.-Hautes-kontuetara ondotik zehaztuko ditugunetatik ekarpenak egiteko debekua betetzen dela egiaztatu: zeinahi administrazio edo korporazio publikotatik; erakunde autonomo edo estatuaren meneko erakundeetatik; Estatuaren, autonomia erkidegoen, probintzien edo udalerrien jabetzako diren sektore publikoko enpresetatik; ekonomia mistoa duten enpresetatik; eta indarreko kontratu bitartez, administrazio publikoetakoren batentzat zerbitzuak eman edo horniketa zein obrak egiten dituzten enpresetatik (ELHLren 145.1 artikulua).

7.-Atzerriko erakunde edo pertsonengandik, edo Autonomia Erkidegoaz kanpo bizilekua dutenengandik edo legez kanpoko jardueretatik etorritako ekarpenak hartzeko debekua bete dela egiaztatzea (ELHLren 145.2 eta 3 artikulua).

8.-Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkariak eskuratu zituzten kandidatei Eusko Jaurlaritzak emandako hautes-dirulaguntzen aurrerakinetan gehieneko muga errespetatu dela egiaztatzea. Aurreratutako kopuruak ezin gaindituko du kandidatura horrek berak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan eskuratutako dirulaguntzaren ehuneko hogeita hamarra (ELHLren 144.2 artikulua).

9.-Kandidatek eskuratu dituzten emaitzen arabera dagokien bigarren aurrerakinaren zenbatekoa, dirulaguntzen zenbatekoaren %90aren pareko dena; kasua denean, aurreko ataleko aurrerakina murriztuz (ELHLren 144.7 artikulua).

10.-Hautes-gastuak egiaz hauteskundeak deitzen diren datatik hautagaiak izendatzen direnera arte egin direla egiaztatzea, ELHLren 146. artikulua agindutakoaren arabera.

11.-ELHLren 147. artikulua agintzen du inongo alderdi, federakunde, koalizio edo kandidatek ezingo dituela ezarritako mugak gaindituko dituzten hautes-gastuak egin. Barne Sailburuaren 2005eko martxoaren 21eko Aginduak kopuru hori 1.276.754,45 euroan finkatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru hautes-barrutietan batean aurkezten diren haientzat. Honez gain, hautesleei propaganda, gutunazal eta papertxo edo hautes-publizitateko bestelako zeinahi elementuren igorpen zuzen eta pertsonalak eragindako hautes-gastuak subentzionatzen dira, hautesle bakoitzeko 0,18 euro ordainuz, dena delako kandidatek zerrenda aurkeztu eta aulkia eskuratu duen hautes-barruti bakoitzean. Diruz lagundutako kopurua ez da ELHLren 147. artikuluan aurreikusten den mugaren barruan barne hartua egongo, beti ere atal honek erreferentziagai duen jardura egiaz gauzatu izana justifikatzen bada (ELHLren 151.2 artikulua).

12.-Egindako gastuak justifikatu, kontularitza, merkataritza eta fiskalaritzako printzipio eta arauak finkatzen dituzten gutxieneko betekizunak osatuko dituzten agiri bitartez.

13.-Prentsa-irratiko eta publizitate-kartel eta hesietako publizitate kontzeptuan egindako gastuen mugaketek, hurrenez hurren, ELHLren 72 eta 75. artikuluek ezarritako mugak errespetatzen dituzte.

Hauteskunde prozesu honi ezargarria zaion legeria, ondotik zehaztutako hau da:

- 5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzkoa.

- 15/1998 Legea, ekainaren 19koa, 5/1990 Legea aldarazten duena, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa.
- 6/2000 Legea, urriaren 4koa, 5/1990 Legea aldarazten duena, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa.
- 1/2003 Legea, martxoaren 28koa, 5/1990 Legea aldarazten duena, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa.
- 2/2005 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Lehendakariarena, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeak deitzen dituena.
- 2001eko martxoaren 22ko Agindua, Ogasun eta Herri Administrazioiko Sailburuarena, 5/1990 Legean bildutako kopuruak gaurkotzen dituena.
- 2005eko otsailaren 23ko Agindua, Barne Sailburuarena, 2005eko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan hautes-gastuak mugatzeko ezarritako kopuruak finkatzen dituena.
- 2005eko maiatzaren 29ko Akordioa, Autonomia Erkidegoaren Hauteskunde Batzordearena (AEHB), 2005eko apirilaren 17an egindako Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde boto kontaketa orokorrari dagozkion emaitzak argitara ematea xedatzen duena.

Hona hemen 2005eko apirilaren 17an egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan kandidatura aurkeztu eta aulkia eskuratu duten alderdi politiko eta hautes-koalizioak:

ALDERDI EDO KOALIZIO POLITIKOA	SIGLAK
EAJ-PNV / EA Koalizioa	EAJ-PNV / EA
Partido Socialista de Euskadi - Euskadiko Ezkerra (PSOE)	PSE-EE (PSOE)
Alderdi Popularra - Partido Popular	PP
Partido Comunista de las Tierras Vascas - Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunista	PCTV - EHAK
Coalición EAJ-PNV / EA / Euzko Abertzaleak	EAJ-PNV / EA / EA-NV
Ezker Batua Berdeak - IU	EB
Aralar	Aralar

Aulkirik eskuratu ez duen alderdi edo koalizio politiko batek ere ez du hautes-diru laguntzaren aurrerakinik eskatu.

I. ONDORIOAK

I.1 LANAREN ZABALARI MUGAK

Mamitu dugun lanak honako muga hauek izan ditu:

- Alderdi politikoen kontabilitatea fiskalizatzea ez da HKEEren egitekoa, Kontuen Epaitegiarena baizik (Estatukoa). Hau dela eta, HKEEk ez du egiaztatu aurkeztutako kontabilitateetan erregistratu gabeko hautes-gasturik ote dagoen; ezta, alderdi politikoen kontabilitatearen bitartez legezko debeku edo mugak urratzen dituzten diru-sarrerak bideratu ote diren.

- ELHLren 142.3 artikulua xedatzen du hauteskunde gastu guztiak hauteskunde ondoko 90 egunen barruan ordaindu beharko direla. Kontabilitateak aurkezteko epea 60 egunekoa denez gero, HKEEk ez du ondoko 30 egunetan egindako ordainketei buruzko informaziorik eskuratu.

I.2 LEGEDIA BETETZEA

EHAK alderdi politikoak 20.854,94 euro sartu ditu hautes-kontuan (ikus IV.4) eta Aralar alderdi politikoak 4.429,46 euro (ikus IV.7); bietatik bakarrean ere ez da inon ageri ELHLk eskatzen duen hirugarrenen identifikazioa.

I.3 DIRU-LAGUNTZA PROPOSAMENA

Hautes-gastuetarako diru-laguntza Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kontura ordaintzen da, ELHLren 151.1 artikulua betez, 2005eko otsailaren 23ko Agindu bidez aldarazitakoa. Diru-laguntzak ez du inoiz justifikatutako gastu kopurua gaindituko, ezta ere izango hautesleei propaganda, gutunazal eta papertxo edo hautes-publizitateko bestelako zeinahi elementuren (mailing) igorpen zuzen eta pertsonalak eragindako hautes-gastua murriztu ondoren, 2005eko martxoaren 21eko Aginduak finkatutako gastuen gehieneko muga baino handiagoa.

Irizpide hauen arabera, hona hemen egoki justifikatutako gastuak eta zorpetutako eta ordaintzeko dauden diru-laguntzak:

HAUTES-GASTUEN DIRU-LAGUNTZA				Euroak	
KANDIDATURA	Justifikatutako gastuak	Zorpetutako diru-laguntza	Ordaindutako aurrerakinak	Ordaintzeko dagoen diru-lag.	
EAJ-PNV / EA	1.076.900,05	939.052,07	845.146,86	93.905,21	
PSE-EE (PSOE)	1.312.201,36	1.025.519,71	922.967,74	102.551,97	
PP	1.511.659,66	913.477,13	822.129,42	91.347,71	
PCTV-EHAK	483.472,85	483.472,85	506.560,00	(23.087,15)	
EAJ-PNV / EA / EA-NV	523.340,25	467.472,61	420.725,35	46.747,26	
EB	940.391,14	545.697,64	491.136,14	54.561,50	
Aralar	323.576,67	171.486,37	156.518,74	14.967,63	
GUZTIRA	6.171.541,98	4.546.178,38	4.165.184,25	380.994,13	

Zorpetutako diru-laguntzak mailing-ak eragindakoa ez ezik, gainerako hautes-gastuei dagokiena ere barne hartzen du; guztiak daude zehaztuak II.3 eta II.4 ataletan, hurrenez hurren. Jasotako aurrerakinen xehekapena II.2 atalean barne hartu dugu.

Bestetik, IV. Atalak alderdi eta koalizioen hautes-kontabilitatearen xehekapena dago islatua eta aurkeztu diren kontabilitateetan egindako zuzenketak zehazten dira.

II. GASTU ETA DIRULAGUNTZEN MUGA

II.1 HAUTES-EMAITZAK

Lurralde Historiko bakoitzeko Hautes-Batzordeek jaulkitako hautagaiak izendatzeko akten arabera, Autonomia Erkidegoaren Hautes-batzordeak egiaztaturikoa, alderdi bakoitzak eskuratu behar dituen diru-laguntza publikoak zehazteko boto eta aulki zenbagarrien kopurua honako hau da:

KANDIDATURA	____ ARABA ____		____ GIPUZKOA ____		____ BIZKAIA ____		EAE	
	BOTOAK	AULKIAK	BOTOAK	AULKIAK	BOTOAK	AULKIAK	BOTOAK	AULKIAK
EAJ-PNV / EA.....	51.986	8	267.247	11	-	-	319.233	19
PSE-EE (PSOE).....	43.216	7	152.459	6	78.871	5	274.546	18
PP	43.989	7	114.845	5	51.780	3	210.614	15
PVTV-EHAK.....	14.187	2	65.623	2	70.834	5	150.644	9
EAJ-PNV / EA / EA-NV	-	-	-	-	148.884	10	148.884	10
EB.....	8.409	1	36.226	1	20.388	1	65.023	3
Aralar.....	2.542	0	10.242	0	15.396	1	28.180	1
Gainerako kandidaturak ...	5.190	0	5.694	0	2.590	0	13.474	0
GUZTIRA	169.519	25	652.336	25	388.743	25	1.210.598	75

Hautagaiak izendatzeko akten arabera, hautagaien errolda honako hau izan da:

LURRALDE HISTORIKOA	EUSKAL HERRIKO BIZTANLEAK	ATZERRIKO BIZTANLEAK	ERROLDA GUZTIRA
ARABA.....	244.487	3.161	247.648
GIPUZKOA	566.779	14.121	580.900
BIZKAIA	949.987	20.988	970.975
GUZTIRA	1.761.253	38.270	1.799.523

Erroldaren Bulego Nagusiaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoan pertsona bat gutxiago dago erroldatua.

II.2 DIRULAGUNTZEN AURRERAKINAK ETA JASOTZEKO DAUDEN DIRULAGUNTZAK

Eusko Legebiltzarrerako Legearen 144. artikularen 2. atalak xedatzen du "Eusko Jaurlaritzak hautes-dirulaguntzen aurrerakinak emango dizkiela Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkariak eskuratu dituzten alderdi politiko, federakunde, koalizio edo kandidaturei. Aurreratutako kopuruak ezin gaitutuko du talde politiko, federakunde, koalizio edo kandidatura horrek berak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan eskuratutako dirulaguntzaren ehuneko hogeita hamarra".

144. artikularen 7. atalak esaten du hauteskundeak egin ondoren eta hamabost eguneko epean, Autonomia Erkidegoaren Hauteskunde Batzordearen aurrean hautes-kontabilitatea aurkezteko aldia amaitzen denetik aurrera kontatuta, Ogasunaren ardura duen Departamentuak administratzaile orokorrei emango diela bigarren aurrerakin modura kandidaturei eskuratutako hauteskunde emaitzen arabera dagozkien dirulaguntzen zenbatekoaren %90aren baliokidea, kasua balitz, aurreko lerroarteak aipagai duen aurrerakina murriztuz. Aurrerakin hau eskuratu ahal izateko, alderdi eta koalizioek eskuratutako aurrerakin guztien ehuneko hamarreko banku-abala aurkeztu behar dute.

2005eko apirilaren 17ko hauteskundeetan ordezkariak eskuratu zituzten alderdi politiko eta koalizio bakoitzak eskuratutako dirulaguntzen aurrerakinak honako hauek dira:

DIRU-LAGUNTZAREN AURRERAKINA	Euroak		
	LEHENENGO AURRERAKINA	BIGARREN AURRERAKINA	GUZTIRA
KANDIDATURA			
EAJ-PNV / EA.....	280.083,48	565.063,38	845.146,86
PSE - EE (PSOE)	241.224,86	681.742,88	922.967,74
PP.....	292.267,32	529.862,10	822.129,42
PCTV - EHAK.....	0,00	506.560,00	506.560,00
EAJ-PNV / EA / EA-NV	132.599,46	288.125,89	420.725,35
EB.....	0,00	491.136,14	491.136,14
Aralar.....	0,00	156.518,74	156.518,74
GUZTIRA	946.175,12	3.219.009,13	4.165.184,25

Bigarren aurrerakina ez dago hautes-kontabilitateetan jaso, horiek igorri ondokoa baita. Ordea, zenbait alderdi politikok eskuratzeko duten diru-laguntzaren gutxi gora-beherako balioespena barne hartu dute.

Alderdi eta koalizio guztiek eskuratutako aurrerakinen %10eko abala aurkeztu dute.

Ordaindu beharreko aurrerakinetatik, Eusko Jaurlaritzak –derrigorrezkoa izan denean– hautes-propaganda erretiratzerakoan udalek eragindako gastuak murriztu ditu.

II.3 HAUTESLEEI IGORPEN ZUZEN ETA PERTSONALA EGITEAGATIK DIRULAGUNTZA

Alderdi politiko eta hautes-koalizioek diru-laguntza eskuratu dute hautesleei propaganda, gutunazal eta papertxo edo hautes-publizitateko bestelako zeinahi elementuren igorpen zuzen eta pertsonalak eragindako hautes-gastuen ordainetan. Diru-laguntza hori hautesle bakoitzeko 0,18 eurokoa izango da, dena delako kandidaturak aulkia eskuratu duen hautes-barruti bakoitzean, beti ere atal honek erreferentziagai duen jarduera egiaz gauzatu izana justifikatzen bada.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Hauteskunde Batzordeak 1998ko irailaren 11n egindako bileran adierazi zuen hautesle dela hautes-propagandaren igorketa egin zaion hura.

Kandidatura bakoitzak gutxienez aulki bat eskuratu duten barrutietan egindako igorpen zuzenen kopurua eta eman dakiekeen gehieneko dirulaguntza honako hau izan da:

IGORPEN ZUZENARI EMANDAKO DIRULAGUNTZA				Euroak
KANDIDATURA	IGORPEN	GEHIENEO	JUSTIFIKATUTAKO	DIRU-LAG. EZARGARRIA
	LAGUNGARRIAK	DIRU-LAGUNTZA	GASTUAK	
EAJ-PNV / EA	1.218.623	219.352,14	239.433,08	219.352,14
PSE-EE (PSOE)	1.799.523	323.914,14	329.363,92	323.914,14
PP	1.799.523	323.914,14	327.060,79	323.914,14
PCTV - EHAK	702.773	126.499,14	240.564,76	126.499,14
EAJ-PNV / EA / EA-NV.....	580.900	104.562,00	128.151,30	104.562,00
EB	1.799.472	323.904,96	377.112,66	323.904,96
Aralar.....	567.437	102.138,66	193.749,77	102.138,66
GUZTIRA		1.524.285,18	1.835.436,28	1.524.285,18

Igorketa subentzionagarritzat hartu dira alderdi eta koalizioek modu frogagarrian justifikatu dituzten haiek, EAEHBren 1998ko irailaren 11ko interpretazioaren arabera. Kontzeptu honen izenean subentzionatu ez diren gastuak, gainerako hautes-gastuetan biltzen dira.

II.4 HAUTES-GASTUEN DIRULAGUNTZA

Hauteskundeetako propaganda igortzeagatik dirulaguntzaz gain, gainerako gastuak ondoko zenbatekoekin subentzionatuko dira, eskuratutako boto eta ordezkarien arabera, 2005eko otsailaren 23ko Agindu bidez onartutako zenbatekoei jarraiki:

- Hogeita bat mila zazpiehun eta laurogeita hamar, koma hirurogeita hamalau euro (21.790,74 euro) Eusko Jaurlaritzan eskuratutako aulki bakoitzeko.
- Zero koma hirurogeita hamahiru euro (0,73 euro) kandidatura bakoitzak eskuratutako boto bakoitzeko, beti ere, gutxienez kideetako batek dagokion hautes-barrutian aulkia eskuratu badu.
- Hogeita hamasei mila, hirurehun eta hamazazpi, koma laurogeita bederatzia euro (36.317,89 euro) hauteskunde barruti bakoitzeko, gutxienez aulki bat eskuratzen dutenei hauteskunde barruti bakoitzeko.

Honen arabera, hautes-alderdi eta koalizio bakoitzari dagokion gehienezko dirulaguntzaren zenbatekoa honako hau da:

HAUTES-GASTUEN GEHIENEZKO DIRULAGUNTZA				Euroak
KANDIDATURA	AULKIAK	BOTOAK	ORDEZKARITZA	GUZTIRA
EAJ-PNV / EA.....	414.024,06	233.040,09	72.635,78	719.699,93
PSE-EE (PSOE).....	392.233,32	200.418,58	108.953,67	701.605,57
PP	326.861,10	153.748,22	108.953,67	589.562,99
PCTV - EHAK.....	196.116,66	109.970,12	108.953,67	415.040,45
EAJ-PNV / EA / EA-NV.....	217.907,40	108.685,32	36.317,89	362.910,61
EB.....	65.372,22	47.466,79	108.953,67	221.792,68
Aralar	21.790,74	11.239,08	36.317,89	69.347,71
GUZTIRA	1.634.305,50	864.568,20	581.086,24	3.079.959,94

Dirulaguntza hauek mugatuta daude kandidatura bakoitzak egiaz justifikatutako gastuekin eta honenbestez, hautes-alderdi eta koalizioek kobratuko duten dirulaguntza bi kopuruetan txikiena izango da, hau da, dirulaguntza edo justifikatutako gastua.

HAUTES-GASTUETARAKO DIRULAGUNTZA				Euroak
KANDIDATURA	GASTUAK	MAILING	HAUTES-	DIRU-LAG.
	GUZTIRA	DIRU-LAG.	GASTUAK	EZARGARRIA
EAJ-PNV / EA	1.076.900,05	219.352,14	857.547,91	719.699,93
PSE-EE (PSOE)	1.312.201,36	323.914,14	988.287,22	701.605,57
PP	1.511.659,66	323.914,14	1.187.745,52	589.562,99
PCTV - EHAK	483.472,85	126.499,14	356.973,71	356.973,71
EAJ-PNV / EA / EA-NV.....	523.340,25	104.562,00	418.778,25	362.910,61
EB	940.391,14	323.904,96	616.486,18	221.792,68
Aralar.....	323.576,67	102.138,66	221.438,01	69.347,71
GUZTIRA	6.171.541,98	1.524.285,18	4.647.256,80	3.021.893,20

Aurreko taulan azaldutako guztizko gastuak bat datoz alderdi eta koalizioak aurkeztutakoekin; horiei, IV. Atalean adierazitako igoera- edo beherapen-doiketak aplikatu zaizkie.

Zuzen justifikatutako gastuen guztizkotik, propagandaren (mailing) igorketa zuzen eta pertsonalagatik jada diruz lagundutako gastuak murriztu dira. Era honetara, gainerako gastuak aurreko taulan zehaztutako jasotzeko gehieneko zenbatekoarekin alderatzen dira eta bi kopuruetan txikiena dena laguntzen da diruz.

II.5 GASTUETARAKO GEHIENKO MUGA

Barrutien arabera hautes-gastuek ezingo dituzte ondoko zenbateko hauek gainditu:

	Euroak
ARABA.....	279.344,36
BIZKAIA	578.465,61
GIPUZKOA	418.944,48

Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru hautes-barrutien multzoan aurkezten diren alderdi, federakunde, koalizio edo elkarteentzat, mailing-ak eragindako diruz lagundutako gastuak behin murriztu ondoren, hautes-gastuen muga 1.276.754,45 eurokoa izango da.

EAJ-PNV / EA koalizioaren kasuan, Araba eta Bizkaian soilik aurkeztu dena, muga bi lurralde hauen batuketa da, hau da, 857.809,97 euro. Gipuzkoan soilik aurkeztu den EAJ-PNV / EA /EA-NV koalizioarentzat ezarritako muga, lurralde horrentzat xehekatutakoa da.

Alderdi politikoko edo hautes-koalizio bakar batek ere ez du muga hau gainditu.

Gainera, ELHLren 72 ETA 75 artikuluek prentsa-irratiko eta publizitate-kartel eta hesietako publizitate gastuetarako mugak ezartzen dituzte, aurreko mugetara hurrenez-hurren %20 eta %25ean erreferentziatzen dituztela.

Ondoko taulak alderdi eta koalizio bakoitzak kontzeptu hauetan egindako gastuak xehekatzen ditu; baita, aurkeztu diren barrutien arabera, ezargarri zaizkien mugak ere:

MUGAK	Euroak				
	KANDIDATURA	PRENTSA-IRRATIKO GASTUAK		PUBLIZ. HESIETAN GASTUAK	
		MUGA	GASTUA	MUGA	GASTUA
EAJ-PNV / EA	171.561,99	171.243,60	214.452,49	208.686,32	
PSE-EE (PSOE)	255.350,89	185.377,56	319.188,61	210.577,43	
PP	255.350,89	235.434,93	319.188,61	168.174,67	
PCTV - EHAK	255.350,89	48.008,10	319.188,61	92.082,48	
EAJ-PNV / EA / EA-NV.....	83.788,90	83.177,02	104.736,12	102.526,60	
EB	255.350,89	195.367,46	319.188,61	272.557,98	
Aralar.....	255.350,89	53.482,47	319.188,61	2.726,53	
GUZTIRA	1.532.105,34	972.091,14	1.915.131,66	1.057.332,01	

III. HUTSAK ETA GOMENDIOAK

III.1 IZAERA FORMALEKO ARAUTEGIA URRATZEA

El Partido Comunista de las Tierras Vascas - Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunistak Euskal Herriko Hauteskunde Batzordeari kontu korrontea ireki izanaren berri eman zion, ireki eta handik 16 egunetara. Ezker Batua Berdeak - IU alderdiak hauteskundeetarako kontu korrontearen irekiera 23 egun beranduago jakinarazi zuen. Partido Socialista de Euskadi - Euskadiko Ezkerra (PSOE) alderdiak Arabako Lurralde Historikoan erabilitako kontuaren irekiera Hautes Batzorde Probintzialari ireki eta bi hilabete beranduago jakinarazi zion. ELHLren 151.1 artikulua ireki eta ondoko 24 orduetan jakinarazi behar dela agintzen du.

EAJ-PNV / EA eta EAJ-PNV / EA / Euzko Abertzaleak hautes-koalizioek hornitzaileei ordainketak egin dizkiete hauteskundeetako ez den kontu batetik eta ondoren, zenbateko hori hautes-kontutik hasieran ordainketa egiteko erabili zenera transferitu dute, ELHLren 142.1 artikulua urratuz.

Aralar Alderdiak ez du Kontabilitate Plan Orokorrera egokitutako kontabilitate xehekatua aurkeztu, ELHLren 140 artikulua agintzen duen moduan; ordea, gastu eta sarreraren zerrenda bat baizik ez du aurkeztu; hortik eskuratu dira irizpen honi erantsi zaizkion datuak.

III.2 GOMENDIOAK

ELHLren 151.2 artikulua adierazten du “honez gain, hautesleei propaganda, gutunazal eta papertxo edo hautes-publizitateko bestelako zeinahi elementuren igorpen zuzen eta pertsonalak eragindako hautes-gastuak subentzionatzen dira, hautesle bakoitzeko 0,18 euro ordainduz, dena delako kandidaturak zerrenda aurkeztu eta aulkia eskuratu duen hautes-barruti bakoitzean. Diruz lagundutako kopurua ez da ELHLren 147. artikuluan aurreikusten den mugaren barruan barne hartua egongo”.

ELHLren inongo artikulutan ez dira, ordea, kontzeptu honi egotzi behar zaizkion gastuak zehazten.

Artikulu honen interpretazioa EAEHBk aztertu zuen 1998ko irailaren 11n egindako bileran eta bertan deskribatu zuen zer den hautesle bakoitzeko diru-laguntza eta nola justifikatu behar diren gastu hauek, baina zein gastu egotzi behar diren finkatu gabe.

Kontzeptu honi egotzi behar zaizkion gastuak, berriazko dirulaguntzari atxikiak daudenak, zehatzago arautu behar dira, egungo zehazgabetasuna saihesteko.

Alderdi politikoez eta hautes-koalizioek euskarri modura aurkezten dituzten hautes-kontabilitate eta justifikagiritan zuzendu beharrekoak diren hainbat alderdi azaleratu ditugu:

- Gastuak biltzeko erabiltzen diren kontularitzako kontzeptuak guztiz bestelakoak dira batzuetatik besteetara. Komenigarria litzateke gastu kontzeptuak EAEHBk 146. artikuluan egiten duen sailkapenera egokitzea eta prentsa-irratikoen artean propaganda eta publizitate gastuak eta toki publikoetako propaganda grafikoaren gastuak bereiztea, ELHLren 72 eta 75. artikuluen arabera berariazko mugaketak arautzen baititu.
- Komenigarria da dokumentazio guztia, eta bereziki balantzea eta emaitzen kontua, zigilatua eta alderdi edo koalizioaren hautes-administrari orokorrak izenpetua igortzea.
- Aurkeztutako fakturek argi eta garbi erakutsiko dute gastua zein datatan eta zein kontzeptupetan egin den.
- Gastu txikiek argitasunez zehaztu behar dute zein datatan egin diren, norik egin dituen eta barne hartzen dituzten kontzeptuak. Gainera, dagozkion ordainketa agiriak aurkeztu beharko dira, ordainketa nori egin zaion garbi azalduko dutenak.

IV. HAUTES-KONTUAK

Ondotik erakutsiko ditugun hautes-kontabilitateak kandidaturek igorritakoak dira; kontuetan publizitate zuzen eta pertsonala igortzeak eragindako gastua bereizirik aurkeztu ez duten kandidaturetan zati-banatu egin ditugu eta era berean, kontzeptuak berdinu ditugu ELHLk 146. artikuluan egiten duen sailkapenera egokituz. Diruz lagungarri ez diren gastuak eta euskarririk gabeko gastuak aparteko kontzeptuan bildu ditugu eta dagozkien kontuen ondoren daude zehaztuak.

IV.1 EAJ-PNV / EA KOALIZIOA

2005eko ekainaren 6ko hautes-kontabilitatea ondokoa da:

		Euroak	
Igorpen zuzen eta pertson. gast. (mailing) ..	239.433,08	Diru-laguntzaren aurrerakina	280.083,48
Publizitatea eta propaganda	379.929,92	Alderdien ekarpena	797.050,00
Aretoen alokairua	41.843,84		
Langileei ordainketak	11.260,51		
Garraio eta desplazamenduak	17.595,30		
Finantza gastuak	186,00		
Hainbat gastu	386.651,40		
DIRUZ LAGUNGARRI DIREN GASTUAK	1.076.900,05	JUSTIFIKATURIKO SARRERAK	1.077.133,48
Diruz lagungarri ez diren gastuak	0,00	Justifikatu gabeko sarrerak	0,00
KONTABILIZATUTAKO GASTUAK	1.076.900,05	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK	1.077.133,48
Diruzaintza	233,43	Hartzekodunak	0,00
	1.077.133,48		1.077.133,48

IV.2 PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI - EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)

Propagandaren igorpen zuzen eta pertsonalerako (mailing) kontabilitate bat aurkeztu du eta gainerako gastuetarako, beste bat. Hona hemen gastu hauen kontabilizazioa 2005eko ekainaren 15ean:

		Euroak	
Igorpen zuzen eta pertson. gast. (mailing) ..	329.363,92	Diru-laguntzaren aurrerakina	241.224,86
Publizitatea eta propaganda	506.202,00	Jasotzeko dagoen diru-laguntza	784.828,63
Garraio eta desplazamenduak	31.998,29	Finantza sarrerak	5,16
Alokairuak	5.679,52		
Langileei ordainketak	996,22		
Finantza gastuak	4.733,55		
Hainbat gastu	433.227,86		
DIRUZ LAGUNGARRI DIREN GASTUAK	1.312.201,36	JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK	1.026.058,65
Diruz lagungarri ez diren gastuak	569,79	Justifikatu gabeko gastuak	0,00
KONTABILIZATUTAKO GASTUAK	1.312.771,15	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK	1.026.058,65
Diruzaintza	(0,50)	Maileguak	694.243,63
Zordunak	414.828,63	Hartzekodunak	7.297,00
	1.727.599,28		1.727.599,28

Ez dugu diruz lagungarritzat hartu interesen gehiegizko aldizkakotzea partiduak kalkulaturako dataren –2006ko martxoaren 20a- eta bigarren aurrerakina ordaintzeko aurreikusitako dataren artean, 2005eko uztailaren 1a, alegia. Nolanahi ere, doiketa honek ez du eskuratuko duten dirulaguntzan eraginik izan.

IV.3 PARTIDO POPULAR-ALDERDI POPULARRA

Alderdi honen hautes-kontabilitatea 2005eko ekainaren 15ean honako hau da:

		Euroak	
Igorpen zuzen eta pertson. gast. (mailing) ..	327.060,79	Diru-laguntzaren aurrerakina	292.267,32
Publizitatea eta propaganda	750.770,16	Jasotzeko dagoen diru-laguntza....	621.209,81
Alokairuak	24.886,24	Alderdiaren ekarpena	220.857,61
Garraio eta desplazamenduak	4.055,28		
Finantza gastuak.....	7.953,93		
Hainbat gastu.....	396.933,26		
DIRUZ LAGUNGARRI DIREN GASTUAK	1.511.659,66	JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK	1.134.334,74
Diruz lagungarri ez diren gastuak	9.419,20	Justifikatu gabeko gastuak.....	0,00
KONTABILIZATUTAKO GASTUAK	1.521.078,86	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK	1.134.334,74
Diruzaintza	0,00	Maileguak.....	1.000.000,00
Zordunak.....	621.209,81	Hartzekodunak.....	7.953,93
	2.142.288,67		2.142.288,67

Diruz ez lagungarritzat hartutako gastuak 2005eko urtarrilaren 30eko ordainagiri bati dagozkio, hauteskunderen deialdia baino lehenagokoa; honenbestez, ez da diruz lagungarria, ELHLren 146. Artikuluaren arabera. Nolanahi ere, doiketa honek ez du eskuratuko duten dirulaguntzan eraginik izan.

IV.4 PARTIDO COMUNISTA DE LAS TIERRAS VASCAS - EUSKAL HERRIALDEETAKO ALDERDI KOMUNISTA

Alderdi honen hautes-kontabilitatea 2005eko ekainaren 8an honako hau da:

		Euroak	
Igorpen zuzen eta pertson. gast. (mailing) ..	240.564,76	Norbanakoen ekarpena	8.050,00
Publizitatea eta propaganda	153.198,58	Kontu korrontearen interesak	0,53
Aretoen alokairua	3.348,85		
Garraio eta desplazamenduak	5.916,00		
Finantza gastuak	394,57		
Hainbat gastu	80.050,09		
DIRUZ LAGUNGARRI DIREN GASTUAK	483.472,85	JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK	8.050,53
Diruz lagungarri ez diren gastuak	23.482,77	Justifikatu gabeko gastuak	17.900,44
Kontuetaratu gabeko interesak	(394,57)		
KONTABILIZATUTAKO GASTUAK	506.561,05	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK	25.950,97
Diruzaintza	45.283,04	Hartzekodunak	462.938,62
		Banku maileguak	60.000,00
		Aplikatzeko dauden kontusailak	2.954,50
	551.844,09		551.844,09

Hona hemen diruz ez lagungarritzat jo ditugun gastuen xehekapena:

HORNITZAILEA	KONTZEPTUA	ZIOA	ZENBATEKOA
Aballarri	Adituen kontabilitate-zerbitzuak, maiatza eta ekaina	Epez kanpoko gastua (146. art.)	10.348,31
IZT Koop. E.	Material informatikoa	Ez da gastua, inbertsioa baizik (146. art.)	12.424,10
Iragarri SL	Iragarkiaren argitalpena 2005/05/15	146. art. (146. art.)	710,36
GUZTIRA			23.482,77

Alabaina, 394,57 euro egin duten gastuak barne hartu ditugu, eskuratutako kredituak erabilera datatik dirulaguntzaren bigarren aurrerakina kobratu bitarte arte zorpetutako finantza gastuei dagozkienak, alderdiak bere kontabilitatean erregistratu gabe zituenak.

Egoki justifikatu gabeko gastuak norbanakoei egindako ekarpenei dagozkie; horien justifikagirian ez zen 143.1 artikulua eskatutako datuetakoren bat barne hartu:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Ez du ekarpena egin duenaren helbidea barne hartzen	8.560,00
Ez du ekarpena egin duenaren NAN barne hartzen	6.290,00
Ez ditu ekarpena egin duenaren NAN eta helbidea barne hartzen	2.480,44
NAN bat eman da, baina bankuko abonua-agirian identifikatu gabe	510,00
Ekarpena egin duenaren helbidea EAEz kanpo dago	60,00

Gainera, "Ezartzeko dauden kontusailak" kontuak 2.954,50 euroko sarrerak barne hartzen ditu, zeinetan alderdiak berak ekarpena egin duenaren izena identifikatzerik izan ez duen.

IV.5 COALICIÓN EAJ – PNV / EA / EUZKO ABERTZALEAK

Alderdi honen hautes-kontabilitatea 2005eko ekainaren 8an honako hau da:

		Euroak	
Igorpen zuzen eta pertson. gast. (mailing)...	128.151,30	Dirulaguntzaren aurrerakina.....	132.599,46
Publizitatea eta propaganda.....	185.703,62	Alderdiaren ekarpena	390.900,00
Aretoen alokairua	18.344,95		
Garraio eta desplazamenduak	5.390,81		
Hainbat gastu.....	185.749,57		
DIRUZ LAGUNGARRI DIREN GASTUAK	523.340,25	JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK	523.499,46
Diruz lagungarri ez diren gastuak	0,00	Justifikatu gabeko gastuak.....	0,00
KONTABILIZATUTAKO GASTUAK	523.340,25	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK	523.499,46
Diruzaintza	156,21	Hartzekodunak.....	0,00
Fidantzak.....	3,00		
	523.499,46		523.499,46

IV.6 IZQUIERDA UNIDA BERDEAK - IU

Alderdi honen hautes-kontabilitatea 2005eko ekainaren 10ean honako hau da:

		Euroak	
Igorpen zuzen eta pertson. gast. (mailing)...	377.112,66	Jasotzeko dagoen diru-laguntza....	545.725,49
Publizitatea eta propaganda.....	509.605,77	Alderdiaren ekarpena	300.000,00
Alokairuak.....	10.500,58		
Langileei ordainketak.....	705,04		
Finantza gastuak.....	4.380,55		
Hainbat gastu.....	38.086,54		
DIRUZ LAGUNGARRI DIREN GASTUAK	940.391,14	JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK	845.725,49
Diruz lagungarri ez diren gastuak	50.488,59	Justifikatu gabeko gastuak.....	0,00
Kontuetaratu gabeko interesak	(2.806,12)		
KONTABILIZATUTAKO GASTUAK	988.073,61	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK	845.725,49
Diruzaintza	13.657,00	Maileguak.....	487.808,08
Zordunak.....	545.725,49	Hartzekodunak.....	213.922,53
	1.547.456,10		1.547.456,10

Diruz lagungarri ez diren gastuak honako zenbateko garbi hauei dagozkie:

- Bi aldiz kontabilizatutako 35.553,59 euroko ordainagiri bat.
- Baliogabetutako 14.935,00 euroko ordainagiri bat, horri dagokion gastua hirugarren ordainagiri batean barne hartua egoteagatik.

Honez gain, uztailearen 1era arte 2.806,12 euroko zenbatekoarekin zorpetutako finantza gastuak barne hartu dira, alderdiak kontabilitatean barne hartu ez zituenak.

Nolanahi ere, doiketa honek ez du eskuratuko duten dirulaguntzan eraginik izan.

IV.7 ARALAR

Alderdi honen hautes-kontabilitatea 2005eko ekainaren 15ean honako hau da:

		Euroak	
Igorpen zuzen eta pertson. gast. (mailing) ..	193.749,77	Interesak	1,05
Publizitatea eta propaganda	95.698,35		
Alokairuak	2.814,40		
Garraio eta desplazamenduak	3.424,73		
Langileei ordainketak	630,00		
Finantza gastuak	1.935,41		
Hainbat gastu	25.324,01		
DIRUZ LAGUNGARRI DIREN GASTUAK	323.576,67	JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK	1,05
Diruz lagungarri ez diren gastuak	0,00	Justifikatu gabeko gastuak	4.429,46
Kontuetaratu gabeko gastuak	(1.669,11)		
KONTABILIZATUTAKO GASTUAK	321.907,56	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK	4.430,51
Diruzaintza	31.912,85	Maileguak	178.340,00
Hauteskundeetakoak ez diren ordainketak.	2.195,13	Hartzekodunak	173.245,03
	356.015,54		356.015,54

Indarreko maileguez 2005eko uztailaren 1era arte zorpetutako finantza gastuak, diruz lagungarri diren gastu modura barne hartu ditugu. Nolanahi ere, doiketa honek ez du eskuratuko duten dirulaguntzan eraginik izan.

Hauteskundeetakoak ez diren ordainketa modura 4 ordainketa barne hartzen dira, guztira 2.195,13 eurokoak, alderdiak justifikatu dituen hautes-gastuetarik bati ere ez dagozkionak.

INTRODUCCIÓN

De acuerdo con lo previsto en la Ley 5/1990 de Elecciones al Parlamento Vasco modificada por las leyes 15/1998, 6/2000 y 1/2003 (en adelante LEPV), el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia (TVCP/HKEE) ha fiscalizado la contabilidad de ingresos y gastos de las candidaturas que obtuvieron escaños en las elecciones al Parlamento Vasco del 17 de abril de 2005, o que solicitaron adelanto de la subvención electoral.

La fiscalización, de acuerdo con la normativa vigente, ha consistido en la verificación de los siguientes extremos:

- 1.-**El cumplimiento de las condiciones que establece el artículo 140 de la LEPV sobre la forma de presentación de la contabilidad de ingresos y gastos electorales.
- 2.-**La comprobación de que las cuentas bancarias abiertas o habilitadas, comunicadas a la Junta Electoral, han sido las utilizadas por las candidaturas para la recaudación de fondos y el pago de gastos electorales, con las especificaciones que establecen los artículos 141 y 142.1 y 2 de la LEPV.
- 3.-**La disposición de los saldos de las cuentas abiertas para pagar gastos electorales previamente contraídos, dentro del plazo de 90 días siguientes al de la votación (artículo 142.3 de la LEPV).
- 4.-**La evidencia en las aportaciones de particulares del nombre, domicilio y número del documento nacional de identidad o pasaporte en el acto de la imposición (artículo 143.1 de la LEPV) y el cumplimiento del límite máximo individual de dichas aportaciones señalado en el artículo 145.4, actualizado en la Orden de 23 de febrero de 2005, en 10.211,19 euros.
- 5.-**La procedencia de los recursos aportados por los partidos para sufragar el proceso electoral (artículo 143.3 de la LEPV).
